

MUGITU! MUGIMENDUA

AHTaren kontrako bizikleta martxa bihar iritsiko da Hernanira

Goizeko 11:15etan iritsiko dira Plaza Berrira eta Urumea bailarako kalteak ikustera joango dira.

ASTEBETEAN Euskal Herria zeharkatuko du Abiadura Haundiko Trenaren kontra egiten ari diren bizikleta martxak. Uztailaren 25ean atera ziren Altsasutik eta Donostian dute helmuga, abuztuaren 1ean.

Obrak ikustea, helburuetako bat Abiadura Haundiko Trena martxan jartzeko egiten ari diren obrak eta proiektuak ikusiko dituzte ibilbidean zehar. Euskal Herriko hainbat eskualde eta herri ari dira

zeharkatzen, eta Hernanira bihar iritsiko dira.

Zarautzen bukatuko dute aurreko eguneko etapa, eta Hernanira, Añorgatik barrena etorriko dira. Plaza Berrira goizeko 11:15etan dira iristekoak. Berehala Osiña-

garako bidea hartuko dute eta bertan AHTren obrak ikustera geratuko dira, «Urumea bailaran AHTa egiten ari den kaltea ikusiko dugu». Ondoren, Hernani atzean utzi, eta martxak Astigarragarako bidea hartuko du. ||

DOBERA EUSKARA ELKARTEA - UDALEKU IBILTARIAK

Errepikatze gogoz itzuli dira Udaleku Ibiltarietako neska-mutilak

13 eta 16 urte bitarteko 24 gazte ibili dira Bortzirietan barrena, 11egun.

TALDE polita osatu dute aurreten ere, Udaleku Ibiltarietan egon diren 24 neska-mutilek eta bost begiraleek. Dobera Euskara Elkarteak antolatu ditu, beste urtebetez, euskera oinarri hartuta, Euskal Herriko txoko ezberdinak oinez ezagutzeko asmoarekin.

Bortzirietan barrena ibili dira Ainitze Rodriguez, Ane Iradi, Aritz Lujanbio, Mikel Olabide eta Alazne Urdangarin begiraleekin batera. Arantza, Igantzi, Lesaka, Bera eta Zugarramurdi bisitatu dituzte; eta tartean, esperientziak disfrutatzeko jolas eta ekintza ugari izan dituzte: erreka eta igerilekuetara irteerak, zikin eguna, beldur gaua, piraguismoa, espeleologia... Esperientzia ederra izan da guztientzat. Ostiraletan iritsi ziren Hernanira, eta datorren udararen zain dira asko, errepikatze gogoz. ||



Udaleku Ibiltarietan parte hartutako neska-mutilak eta begiraleak.



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Juaristik jokatu du Kutxa Saria

Zarautzarrak 30-10 irabazi zion Endikari.

JON Juaristi zarautzarrak Kutxa Sari haundia jokatzeko pasea lortu zuen larunbatean, Endika saldiastarrari 30-20 irabazita.

Juaristik segidan egindako 13 tantuak, klabea

Berdindua hasi zen partidua; bi pelotariak tanto bikainak jokatu zituzten, Juaristi 4-3 aurretik jarri zen arte. Sakea hartu zuen eta 13 tantu egin zituen segidan; eta Endikak, ezin partzial horri buelta eman. Aldea haundia eta zaila zen Saldiaseko erremontistarentzat. Endika saiatu zen, batera eta bestera aritu zen, gogor borrokatu zuen, baina markagailuak markatzen zuen aldea gehiago izan zen larunbatekoan. Azken emaitza, 30-20ekoa izan zen.

Bigarren pasea, bihar Urtasun edo Ionek, bietako batek lortuko du bihar Kutxa Saria jokatzeko beste pasea. Prebiako bigarren finala Galarretan jokatu da, 16:00etan hasiko den jaialdian. ||

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK

(GURE INGELESETXEA)

Zorionak Cambridge azterketak gainditzeagatik:

- PET (A2): Asier E.
- B2 (First): Maialen DC.
- B1 (Advanced): Ane E., Leire G., Amaia G.

Deitu (Alan edo Joe) **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - I

AITAN - ETXE

Larramendi, 15
943 55 00 46



ASTEBURUETAN
AFARIK

DORRONSORO



OKINDEGIA

Orain bi faktan aurkituko gaituzu:
⇒ Lizaga 4an
Ogi eta bolleteria aukeran.
Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ Akarregi poligonan, obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

DORRONSORO
**Ogi egin berria
beti zure eskura**



☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hemani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egumez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Goizeko lainoak desegin bezain pronto, eguzkia izango da nagusi egun osoan. Tenperatura aldaketarik ez: Min. 17° / Max. 26°
BIHAR Udako eguraldi zoragarria espero da: laino gutxi eta urdinguneak nagusi. Tenperatura igo egingo da: Min. 17° / Max. 29° (euskalmet)

SANTIO JAIK

Jendetza ibili da aurten Astigarraga eta Aranoko festetan

Leporaino bete zen Astigarragako plaza, Santa Ana egunean. Arkume jateak eta azokak elkartu zuen jende gehien, Aranon.

EGURALDIA bikaina, Santio eguna festa eta asteburua ere tarteko. Faktore guztiak aldeko izan dituzte aurten, Santio jaietan. Jendetza ibili da bai Astigarragan eta baita Aranon ere. Egun guztietan izan da festa, baina izan dira egun klabeak, jende gehiago mugitu dutenak. Festak atzo bukatu ziren, bi herrietan.

Herri kirolak, Astigarragan Bertakoak egunero ibili dira dantza, barre, bazkari eta algaran. Ingurukoentzat ordea, Santa Ana eguna izan ohi da preziatuena. Idi dema, azoka, sagardo dastaketa... goiz pasa joan ziren asko eta momenturen batean txiki geratu zen Astigarragako plaza.

Asteburua klabea, Aranon Festak Santio egunean hasi baziren ere, ostiral eta larunbatean ibili da jende gehien Aranon. Ostiral arratsaldean azokak eta sagardo dastaketak mugitu zuen jendea; eta larunbatean, tradizioa bihurtzen ari den arkume jateak. ||



Euskal Herriko sagardo dastaketa zaharrena da Astigarragakoa.



Dozenak arkume erre zituzten aurten ere, goizean goizetik.

👁️ Jasota Bezala

Iheslariak Euskal Herrira Gure lehen hitzak, une honetan Espainia eta Frantziako espetze urrunetara doazen senide eta lagun guztientzako dira. Izan ere, uda edo negua izan, bero sargoria edo elurra egin, udako oporretan edo Gabonetan, sakanaketak ez du atsedunik hartzen. Beraz, jaso dezatela gure babesa, gertutasuna eta besarkadarik sentikorrena!

Euskal jendartearen gehien-goak bat egiten du indarrean dagoen espetze politikaren amaierarekin eta garaia da gehiegi luzatu den gatazkaren ondorio guztiei modu positiboa eta konponbide klabetan helteko. Eta ondorio mingarri guzti horien karpetairetan baitan kokatzen dira preso eta iheslarien aferak. Azken hauen kasuan, sarri, itzalean geratu den errealitatea da baina mundu osoan zehar barreiatu daude euskal iheslariak. Euretako asko muturreko egoerak edo salbuespen neurri bortitzak pairatuz.

Iragan den ekainaren 15ean euskal iheslariak emandako

urratsak berebiziko garrantzia du. Euren eskubideen inguruko errespetua eskatzeaz gain, konponbidearen agente eta soluziogile aktiboa izateko prestutasuna erakutsi baitzuten.

Herriaren aburuz, euskal iheslari politikoen duintasunez bizitzeko eskubidea dute eta horrek talka egiten du Frantziako gobernuak darabilen jazarpen, atxiloketa eta salbuespen neurrien aplikazioarekin. Ez du inolako zentzurik eta Iparaldeko zein Euskal Herri osoko jendartearen kontra jotzen du eta sufrimenduan zein gatazkaren luzapenaren estrategia antzu eta ulertezinean sakontzen du.

Frantziako Gobernuak bide propioa hartu beharko luke, Espainiako gobernuak markatzen duen eritmoari eta gorpila segitzeari utzita. Parisen hartzen diren erabakiek ere zeresan handia izan dute eta badute oraindik preso eta iheslarien auziari egiazko soluzio bat ematerako orduan.

Konponbideak eta bakeak aukera bat merezi dutelako, preso eta iheslarien eskubideak

errespetatu eta euren aurka ezartzen diren salbuespeneko neurriekin amaitu beharra dago. Espainiako exekutiboak bezala, Frantziakoak jarrera aldatu beharra du eta munduko beste hainbat tokitan suertatu bezala, konponbideari ateak zabalduko dizkion neurri eraikitzaileak hartu behar ditu.

Horiek horrela, Gobernuaren itxikeria, inobilismoa eta gatazka elikatu besterik ez duten erabakien aurrean, ezinbestekoa da konponbidearen hautua sakonduko duten dinamikak indartzea. Bide horretan, herritarren parte hartzea eta lidertza ezinbestekoa izango da. Bertatik, Euskal Herriaren giza eskubideen errespetua, konponbidea eta bakearen alde dauden herritar oro datorren irailaren 14an, Herritarrok Epaia ekimen ibiltari amaiara emateko, Iruñeko Anaitasuna Pabiloian egiteko den ekitaldian parte hartzea gonbidatzen dugu.

Arantxa Aldasoro Begiristain
Hernaniko Herriraren izenean



❖ OMENALDIA

Elias Querejeta zinegile hernaniarra omenduko dute gaur, Donostian

Omenaldia jasoko du gaur Donostian Elias Querejeta zinegile hernaniarra. Euskadiko Filmategiak, Donostiako Zinemaldiak eta SADEk omenduko dute, Donostia Kulturaren kolaborazioarekin. Omenaldia Principe zineman izango da, arratsaldeko 20:00etan, eta bertan izango da Querejetaren alaba, Gracia Querejeta. Euskadiko Filmategiak jakinarazi duenez, Querejetaren bi pelikula jarriko dituzte, 7garren aretoan: Antxon Ezeizarekin batera egin zuen *A través del fútbol* laburmetraia; eta *El último viaje de Robert Rylands* luzemetraia. Elias Querejeta Madrilen hil zen joan den ekainaren 9an. ||

❖ UDALA

Galarreta eta Sagastiyako hainbat tramite aztergai gaur, Hirigintza Batzordean

Hamalau puntu izango ditu gaur, 18:30etan, Udaleko bilera gelan izango den Hirigintza Batzordeak. Eskaera pertsonalak izango dira gehienak eta tartean, Galarreta eta Sagastiyako proiektueta-ko hainbat tramite izango dituzte aztergai. ||

Santa Barbarako landa-parkea egokitze proiektua hizketagai bihar, Plenoan

Hileko azken asteartea izaki, Plenoa deitu dute bihar, 19:00etan, Udaleko Pleno aretoan. Zazpi puntu izango dituzte aztergai, tartean, Santa Barbara landa-parkea egokitze proiektua onartzea. ||

◆ ESKUBALDIA

Bideoa grabatuko dute bihar, eskubaloiarekin harremana izan zutenekin

Hernaniko eskubaloiarekin zerikusia izan duten guztiek, izan jokalarik, entrenatzaile, laguntzaileek... hitzordua dute bihar, 18:00etan, Kirolegian. Historia bilduko duen bideoa grabatzen ari dira, eta eskatu dute, orduko txandal edo jantziekin joatea. ||

❖ ABUZTUAN ITXITA

Goiz Eguzki, Daiteke eta Mendiriz Mendiren egoitzak itxita, abuztuan

Abuztuko oporrak direla eta, Hernaniko hainbat elkarte eta taldeek itxi egin dituzte bulegoko ateak. Kronikari jakinarazi diotenez, Goiz Eguzki, Daiteke eta Mendiriz Mendiren egoitzak itxita egongo dira abuztuaren 1etik 31ra. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Akordeoa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)